

ARTE EDERREN FAKULTATEKO KALITATE-POLITIKA ETA HELBURUAK

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateak kalitatearen kudeaketarekin duen konpromisoa hiru dokumentu nagusitan jasotzen da:

1. Arte Ederren Fakultateko Kalitate Batzordearen Araudia (EHAA, 131. zk., 2023ko uztailaren 11, asteartea)
2. Ikastetxearen Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren eskuliburu eguneratua
3. Arte Ederren Fakultateko 2025-2028 Plan Estrategikoa, 2025eko maiatzeko Zentroko Batzarrak onartua

Dokumentu horietan jasotako oinarriek, Zentroko Batzordearen babesarekin, kudeaketaren bidetik eraman dute fakultatea, honako kalitate-irizpideen arabera:

- Egitekoa-Ikuspena-Balioak lantzea
- Plan Estrategikoa egitea
- Prozesu-mapa bat eguneratzea eta sendotzea eta prozesukako kudeaketa hedatzea

Urtero, gainera, UPV/EHUko SCEI/KEIZen babespean (Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzua), zentroko titulazio guztien jarraipen-txostenak egiten dira, bai eta ikastetxearen Urteko Kudeaketa Txostena eta Plana ere, "Egiaztapen Instituzionalaren Jarraipena" egiteko atal espezifiko bat duena.

Arte Ederren Fakultateko egitekoa

Fakultatearen egitekoak honako hauek dira:

- Ezagutza sortzea, garatzea eta transmititzea arteekin lotutako arloetan.
- Fakultatearen erantzukizuna da ekimena, sormena, espiritu kritikoa eta eskainitako ikasketen jakintza arloekin lotutako gaiak aztertze eta ebazteko gaitasuna duten profesionalen prestakuntza integrala arteen arloan.

Arte Ederren Fakultatean egitekoa lau funtsezko jarduerak gidatzen dute: irakaskuntza, ikerketa, transferentzia eta kultura-ekintza bere ingurunean.

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatea UPV/EHUko goi-mailako hezkuntzako unibertsitate-zentroa da:

- UPV/EHUren eskaintzaren barruan, arlo artistikoko unibertsitateko prestakuntza-eskaera asetzen du.
- Esparru artistikoaren barruan, garapen pertsonalera eta praktika profesionalera bideratutako prestakuntza hartzen du barne.
- Ezagutza artistikoa inplementatzen eta artea bistaratzeko modu berriak sortzen laguntzen duten ikerketa-estrategiak garatzen ditu.
- Artearen ezagutza eta praxia zabaltzen eta sustatzen du gizartean, espiritu kritiko ireki, sortzaile eta berritzailearekin.

Hauek dira zentroaren helburu nagusiak:

- Ikasleei arlo artistikoan, kontserbazioan eta zaharberritzean, sorkuntzan eta diseinuan ikastea erraztea, baliabide praktiko eta teorikoen bidez, ondoren eremu artistikoan eta soziokulturalean aplikatzeko, lan-merkatuan txertatuta.
- Ondorengo ikasketei autonomia-maila handiarekin ekiteko beharrezkoak diren ikaskuntza-trebetasun teoriko-praktikoak garatzea.
- Arlo artistikoan ikerketa sustatzea.
- Praktika artistikoaren ondoriozko ekitaldiak kudeatzea eta horien transferentzia sustatzea.
- Fakultatearen jarduera jakinaraztea eta sustatzea.

Arte Ederren Fakultateko Ikuspegia

Fakultateak honako hauen aintzatespena lortu nahi du:

1. **Ikasleena:** sorkuntza artistikoan, diseinuan eta kultura ondasunen kontserbazioan eta zaharberritzean prestakuntza jasotzeko ikastegi bikaina izateagatik.
2. **IRI/TEKAZELena:** beren lana behar bezala garatu ahal izateko eta pertsonalki eta profesionalki aurrera egiteko aukera ematen duen ikastegia izateagatik.
3. **Enplegatzaileena:** irakaskuntzaren kalitateagatik, profesionalen prestakuntzagatik eta artearen sorkuntzan eta ikerketan eta horren kontserbazioan erreferentziazko ikastegia izateagatik.
4. **Komunitate artistikoarena eta gizartearena:** izen oneko ikastegia izateagatik, komunitate artistikoa eta kulturala dinamizatzen duena —ezinbestekoa hori elikatzeke, dinamizatzeko eta berritzeko—, euskararekin eta euskal sistema artistikoa eta estatuko gainerakoa aberastearekin konpromisoa duena.

5. **UPV/EHUrena eta beste unibertsitate batzuen:** erreferentziazkoa izateagatik arteari buruzko sorkuntza eta ikerketan eta artearen kontserbazioan, emaitzen hedapenean eta ikerketa-sorkuntza modalitate berrien garapenean.
6. **Zientzia eta ikerketa komunitatearena:** bere ikerketa jardueraren kalitateagatik eta ikerketa emaitzen zabalkundeagatik.

Arte Ederren Fakultate Balioak

Arte Ederren Fakultatea sintetikoki ezaugarritzen duten balioak hauek dira:

- Sormena, ekimena eta berrikuntza
- Espiritu kritikoa eta pentsamendu gogoetatsua
- Malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna
- Konpromisoa eta osotasuna
- Erantzunkidetasuna eta kide izatearen sentimendua
- Gardentasuna eta hurbiltasuna
- Sentsibiltatea eta bitartekaritzarako bokazioa

Zentroaren helburua gure Fakultatearen partaidetza eta ikusgarritasun handiagoa lortzea da. Kulturaren, sormenaren eta artearen alde egiten duela (berritzeko eta birsortzeko elementu gisa) esaten duen egitura akademiko eta sozialean, Fakultateak ekarpen handia egin dezake. Gure ustez, ikastetxeko irakasleek eta ikasleek ekarpen handiak egin ditzakegun jakintza-arloak hartzen dituzten esparru eta erakundeetan parte hartzea funtsezkoa da gure ahalmenak aitortzen eta lotura handiagoa izan dezan gure inguruko herritarrekin eta arte- eta kultura-errealitatearekin.

Ikastetxean egiten den jarduera zabalak Fakultateko hormetatik haragoko interesa izan dezakeela jakinda, ikasleen eta irakasleen ekimenak sustatu nahi genituzke, proiektzio handiagoa izan dezaten. Tokiko kultura-eragileekin lankidetzan aritzeko aukerak aprobetxatu behar ditugu, erakunde, elkarte eta kolektiboekin harremanak ezarriz eta sendotuz, baterako proiektuak garatzeko. Lehenik eta behin, gure helburua da ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa lortzea jarduerak antolatzen eta garatzen, eta horrelako dinamika gure fakultatearen bereizgarri izatea.



Arte Ederren Fakultateko Plan Estrategikoa

ARTE EDERREN FAKULTATEKO I. PLAN ESTRATEGIKOA (2025-2028)
2025eko maiatzan onartu zen eta ardatz hauek ditu:

En mayo de 2025 se ha aprobado el I PLAN ESTRATÉGICO DE LA FACULTAD (2025-2028) que tiene los siguientes ejes estratégicos:

1. Prestakuntza
2. Ikerketa eta transferentzia
3. Sistema artistikoa, kultura eta gizartea
4. Pertsonak eta komunitatea
5. Gobernantza eta baliabideak

Aldi berean, Plan Estrategikoak honako zeharkako ardatzak ditu:

1. Euskera
2. GJH, genero berdintasuna, LGTBIAQ+, dibertsitate funtzionala
3. Berrikuntza estetikoak, lidergo intelektualak eta espíritu kritikoa
4. Nazioartekotzea
5. Baliabideak eta azpiegiturak
6. Komunikazioa